

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko martxoaren 31. VIII. urtea. 2.202. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Eva Garciak 'Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak' liburua aurkeztu du

Manuel Larramendi Bazkuna Elkartearen laguntzarekin argitaratu du sasiko haurren eta ama ezkongabeen inguruko lana idazle donostiarrak

Bi urtez aritu da Garcia Zizurkilgo etxe handia ikertzen; Gipuzkoako Foru Aldundiak, «kostata bada ere», artxiboak arakatzeko baimena eman zion **o4**

Markos Landa Auto gidaria

«Gozatzera eta gozaraztera irten ohi naiz, baina oraingoan baita irabaztera ere»

Ibartarra izango da IV. Ñaña Rallysprinteko eskualdeko gidari bakarra, apirilaren 9an **o6**



LEGARCA



Oinkari Dantza Taldeko kideak entseguko une batean. E. MAIZ

Oinkarikoek poesia eta dantza uztartu dituzte euriari begira jarrita

Villabonako dantza taldeak 'Ari du' lana apirilaren 15ean estreinatuko du Tolosako Leidor Antzokian; Edu Muruamendiaraz eta Juan Kruz Igarabideren babesean 80 dantzari irtengo dira oholtza gainera **o5**



HITZAK harpidedunentzat
3 diska ditu


Peachy Joke
taldearen
Asian Tiger Mosquito



HITZAK harpidedunentzat
bi sarrera pare ditu

Izaro eta Irene
Batera Live
ikuskitzunerako

Apirilak 1 • Ostirala
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAK harpidedunentzat
bi sarrera pare ditu

Ateka Rock
jaialdirako

Apirilak 2 • Larunbata • 20:30ean
Leitzako Kiroldegian



sarrerak

harpidedunentzat
TXOKOA hitza

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

→ Laburrak**Minbiziaren aurkako taldearen ikastaroak**

TOLOSA › Minbiziaren aurkako taldeak, *Una hora a la semana para ti* deituriko ikastaroak antolatu ditu apiriletik ekainera bitarte. Ikastaroa, batez ere, minbizidun gaixoei eta hauen senitartekoei zuzendurikoa da, eta prozesu onkologikoekin lotuta dauden gaiak era praktikoan lantzen dituzte. Tolosan datorren apirilaren 14an eta maiatzaren 10ean izango dira ikastaroak, 12:00etatik 13:30era, eta 943 65 21 43 telefonoaren bidez eman behar da izena.

Coke Rioboren tailerra izango da Topic-en

TOLOSA › Datorren larunbata bitarte, Coke Riobo zuzendari eta gidoilari saritua Topic-en izango da tailer bateko irakasle gisa. Tailerra 7 urtetik gorako haur eta helduei zuzendua da eta, besteak beste, plastilinarekin teknika batzuk irakatsiko ditu. Haur kopurua dela eta, saioak bikoiztu behar izan dituzte, eta beraz, oraindik izena eman daiteke 943 65 04 14 telefonoan. Matrikulak 5 euroko prezioa du.

Vianako upategi batera irteera Urkizutik

TOLOSA › Urkizu auzoko Alur Txiki Auzo Elkarteak Rioja Vega upategira irteera antolatu du datorren apirilaren 9rako. Vianako upategira joan nahi duenak, hilaren 3a baino lehen eman beharko du izena, 652 70 96 80 telefono zenbakira deituta.

San Esteban elkartearen urteko Batzar Orokorra

TOLOSA › San Esteban elkartearen urteko Batzar Orokorra ospatuko dute datorren igandean, apirilak 3. Lehenengo deialdia 11:00etan izango da, eta bigarrena, berriz, 11:30ean. Edozein zalantza argitzeko deitu 608 77 11 34 telefonora.

Sanjoanetako festa batzordearen bilera gaur

TOLOSA › Gaur arratsaldean, San Joan jaiak prestatzen hasteko, festa batzordearen bilera izango da, 19:00etan, kultur etxean. Bilera irekia izango da, eta beraz, edozein herritarrek parte hartu ahal izango du.

Bilboko manifestaziorako autobusa

ANOETA › Datorren larunbatean, hilak 2, Sorturen legalizazioaren aldeko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Anoetako ezker abertzaleak. Izena eman nahi duenak, Itzuli tabernan egin beharko du, ostiral eguerdia baino lehen. Larunbatean, 15:00etan abiatuko da autobusa, herriko plazatik.

Biga enkantea izango da larunbatean ferialekuan

TOLOSA › Datorren larunbatean, apirilak 2, biga enkantea izango da ferialekuan. Goizeko 11:00etan hasiko da, eta fri-soiak, pirenaiakoak, limusinak eta blondak egongo dira enkantean.

Euskarareneko bi ekitaldi aste honetarako

TOLOSA › Euskarareneko ekimenaren baitan, bi ekitaldi izango dira aste honetan. Lehenik eta behin, gaur, Korrika 17ren *Zenbait gazte ausart* dokumentala eskainiko dute kultur etxean, 19:00etan; Euskaltzaindia omendu nahi izan du AEK-k, modu honetara. Larunbatean, berriz, *Zapiz astoren gainean* bertso ikuskizunaz gozatu ahal izango da, 11:30etik aurrera, Zerkausian. Bertsolariak Jon Martin eta Iñaki Apalategi izango dira, eta Larreategi anaiek lagunduko diete, trikitixa joaz.

Osasun publikoaren aldeko sinadura bilketa

TOLOSA › Tolosaldea osasun publikoaren aldeko plataformak sinadurak bilduko ditu datorren larunbatean. 11:00etatik 13:30era, herriko kaleetan mahaia jarriko dituzte.



Usabal kiroldegiko zerbitzuak osatuko ditu Berazubi eraberrituak. I. URKIZU

Berazubiko estadioa eraberritzeko hitzarmena onartu dute osoko bilkuran

Bost fase izango dituzte berritze lanek, eta aldageletatik hasiko dira, «egoera oso txarrean» baitaude

Itzea Urkizu

Tolosako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Miguel Muñoa fundazioarekin eta Tolosa C.F.-ekin, Berazubiko estadioa eraberritzeko.

Pasa den asteartean ospatu zuten osoko bilkuran, aho batez onartu zuten udal ordezkariak, lankidetzaz proiektu hau. Urte askoren ondoren adostasun puntu batera iritsi direla esan zuen Jonkin Bildarratz alkateak, «beti izan baitira eztabaidak estadioaren etorkizunari buruz». Hainbat bilera egin ondoren, ordea, «egoera orekatu» batera iristea lortu dutela azpimarratu zuten, eta hau akordio hiru parte-hartzaileen eskuzabaltasunagatik izan zen: «denok eman eta utzi behar izan ditugu gauzak».

Urteetan zeharreko negoziazio hauetan, batetik, Miguel Muñoa fundazioak arazoak izan ditu, Muñoa zenaren testamentua zela eta. Bestalde, Tolosa C.F.-ek bere etorkizuna garatzeko inbertitzaileak behar zituela, argi izan du beti. Udalak, bere aldetik, «beti izan du borondatea» proiektu honetan parte hartzeko, baina Tolosa C.F.-ekin lehendik hitzarturiko akordioa 2016ra artekoa zen, eta

udalak ez zuten inbertsio handiegitan sartu nahi, lau urterako soilik. Lankidetzaz hitzarmen berriarekin, ordea, 2050. urtera arteko kontratua sinatu dute; datozen bost urteetan inbertsio bat egingo du udalak. Hain zuzen ere, urtero 1.251 euroko errenta ordainduko du udalak. Gainera, obren lehen faserako, udalak jada 600.000 euro gorde ditu. Trukean, eta Tolosako Udalak berea ez den leku batera dirua bideratuko duenez, Berazubi Usabal kiroldegia-aren osagarria izango da eraberritze lanak amaitu eta gero; ez dira zerbitzu berak eskainiko Usabalen eta Berazubiren, eta kiroldegiko bazkide guztiak erabili ahal izango dituzte Berazubiko instalazioak, enpresa berak kudeatuko baititu bi kirol eremuak.

Akordioa aho batez onartu dute udal ordezkariak, eta Bildarratzentzat, «oso garrantzitsua da» lortu dutena; «gazte asko mugitzen dira Tolosa C.F.-en inguruan». Tolosa osoari begirako proiektu bat ere badela azpimarratu nahi izan dute, izan ere, «herriko kirolaren azpiegiturari loturiko kezketako bat izan da beti» Berazubiko estadioaren azuzia.

Birgaitze lanak bost fasetan egingo dituzte, eta behar gehiena duten zatiak konponduko dituzte lehenengo. Horrela beraz, lehenengo fasean aldagelak berrituko dituzte, eta baita harmailak ere. Gero, frontoia, padeleko kantxa, gimnasioa, atletismoko pista eta teniseko pista berrituko dituzte, eta azkenik, bulegoa eta dorrea

konponduko dituzte. Igerilekuari dagokionez, orainoz ez dute berrikuntzarik egingo. Era berean, futbol zelaiaren mantentze lanak Muñoa fundazioaren eta Tolosa C.F.-en artean egingo dituzte.

SOS Arrazakeriaren mozioa

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak mozioa aurkeztu zuen astearteko osoko bilkuran, etorkinen boto eskubidearen inguruan. Datorren maiatzaren 22ko hauteskundeetan, zenbait etorkinek botoa emateko eskubidea izango dute, Espainiako Gobernuak herrialde batzuekin hitzartutako akordioak direla eta. Hala ere, zenbait etorkinen herrialdeetan boto eskubiderik ez dagoenez, hemen ere «ukatu egiten zaie» eskubide hori. SOS Arrazakeriak dio, demokrazia erabatekoa izateko, «ezinbestekoa» dela udalerriko biztanle guztien eskubide politikoak aintzat hartzea.

Mozioaren bozketan, PP eta PSE alderdietako ordezkariak aurka zeudela adierazi zuten, eta gainerako udal ordezkari guztiak aldeko botoa eman zuten, alkateak barne. Oscar Renedo zinegotzi sozialistak, mozioa orain dela bi hilabete sortua izateak, honen kontrako jarrera azaltzera bultzatu dituela adierazi zuen: «horretaz gain, edukiarekin ere ez gatoz bat». Bestalde, mozioa udaletan aurkeztu beharrean, Eusko Legebiltzarreko talde politikoei aurkeztea «egokiagoa» iruditzen zaiela nabarmendu zuen Renedok.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosa & Co merkatarik elkarteko kideak Braderie 2011 aurkezten. A. IMAZ

Tolosako 70 dendari kalera irtengo dira Braderie 2011 ekimenarekin

Apirilaren 2an, larunbatean, dendak 10:00etatik 20:30era zabalik egongo dira, baita eguerdian ere

Asier Imaz

Tolosako dendariak biltegiak hutsik utzi nahi dituzte asteburu honetan. Alde batetik, arropa berriei lekua egiteko, eta bestetik, biltegiak gelditzen diren udako eta neguko jantziei irteera emateko. Arrazoi hauengatik antolatuta dute Braderie 2011, larunbatean, 10:00etatik 20:30era.

Tolosako 70 saltzaile inguruk egun guztian zehar dendak irekita edukiko dituzte, baita bazkalduan ere. Erosleek denda barruan eta kanpoan jarriko dituzten postuetan edukiko dute

erosteko aukera. Braderie 2011n parte hartuko duten dendek, ekimeneko kartela eta oihal berde bat edukiko dute ikusgai. Horrez gain, mapak ere banatuko dituzte.

«Prezio oso berezian»

Produktuetan eta dendan ordutegiarekin batera, erosleek erakaragarritasuna prezioan aurkituko

Braderie 2011ren helburuetako bat biltegiak hutsa izango da

dute. Tolosa & Co-tik azaldu duteenez, «prezio oso berezian» egongo dira produktuek.

Hori nahikoa ez balitz, erosketak egiten dituenak bale bat jasokodu. Honekin, Tolosako hainbat tabernetan pintxo bat euro bate-

an edukiko du. Tolosa & Co-tik osalarrien laguntza eskertu nahi izan dute ekimen honetan laguntzeko erakutsi duten jarreragatik. Horrekin batera, Tolosako merkatarik elkartekoek udal langileak izan dituzte gogoan, euren prestutasuna eskertuz. Azkenik, herritar guztiak gonbidatu dituzte «larunbateko jaira».

Egun guztiko jaira

Tolosa & Co-k Triangulua plazan gaztelu puzgarriak jarriko ditu haurrentzat. Bonberenea txaranga ere kalez kale ibiliko da, dinamizatzaile lanak eginaz. Ez dira ordea bakarrik izango. 11:00etatik 13:00etara, Compañía lo que tú me dices taldea egongo da. Arratsaldean, 17:30etik 19:30era, Circus band taldekoak Tolosako kaleetatik barrena ibiliko dira. Hauek akrobaziak, malabarismoak eta abar egingo dituzte.

‘Jeiki, jeiki’ izan da Aranburuko erakusketa ikusiena

Inauterien inguruko lanak urtarilaren 21etik martxoaren 20ra ikusi ahal izan dira; «gustura» agertu dira sustatzaileak

A. Imaz

Jeiki, Jeiki Tolosako Inauterien gaineko erakusketa, Aranburu Jauregiak hartu dituen artean bisitatuena izan dela esan dute antolatzaileek: «Urtarilaren 21etik martxoaren 20ra bitartean 7.340 bisitari hartu ditu».

Tlsbat departamentuak antolatuta eta Nestor Ardanaz tolosar argazkilarik koordinatu duen erakusketak, garai bateko zein gaur egungo Tolosako Inauterietako irudiak eta testigantzak bildu ditu. Tlsbat-etik azaldu duteenez, «horretarako, ezinbestekoa izan da, eta zinez eskertzekoa, hainbat erakunde amandako laguntza eta babesa: Ipar Kutxa, Tolosako Udaleko Turismo Departamentua, Tolosaldea Tour, Tolosa & Co... eta bereziki herritarren partaidetza, materiala ekarri zein bisitari moduan».

Erakusketan Inauterietako buruzko ikuspegi historikoa, herrikoia eta anitza eman nahi izan dela gaineratu dute udaletik, «bilduma ezberdinetako irudiak zein herritar askok, 225 tolosar inguruk utzitako irudiak bilduz. Erakusketa haziz joan da egunek au-

rrera egin ahala, eta bukaeran, 4.000 argazki baino gehiagok osatu dute azken bilduma».

Argazkiekin batera, hiru ikusentzunezko ere egin eta eman dira, hauetako bat, Tolosaren irudia hemendik kanpora erakusteko balioko duena izango da, Tlsbat-en esanetan. Beste batean, 70 tolosar ingururi egindako elkarrizketak jaso dira, ikuspegi ezberdinak islatzeko ahaleginetan. Gainera, hainbat tolosarrek utzitako mozorro, eta pieza esanguratsuak ere ikusgai izan dira.

Aranburuko erakusketaren harira, hainbat jarduerak eraberritu dira: galdera-jokua haurrentzat, Aurrez Aurre jardunaldiak...

Halaber, Aranburu Jauregia topagune nagusi izan duen erakusketak gain, hortik kanpora ere beste zenbait gune hartu ditu: herriko dendak eta Topic. 215 dendetako erakusleho izan dira ekimenean parte hartu dutenak, garai ezberdinetako Inauterietako argazki bana erakusten. Topic-en erakutsi diren irudiak, berriz, Inauterietan eta txotxongilo eta papinekin zerikusia dutenak izan dira.

Balantzea egiterako orduan, ondorioz, «gustura» agertu dira ekimenaren sustatzaileak: «Egitasmoa hain era pozgarrian amaitu den honetan, eta Inauterietan horrelako ahalegina merezi dutela sinistuta... hurrengo urratsarako lanean hastea besterik ez dago!».



‘Jeiki, jeiki’ erakusketa aurkeztu zuten unean. HITZA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria.** Baserri edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Bizileku bezala. Interesatuak deitu 652 71 58 00 zenbakira.

SALGAI

■ **Altzairuak.** Armairua eta mahai eder bat bere banku eta aulkiekin. Argazkiak ikusgai

www.iragarkilaburrak.com web orrialdean. Interesatuak deitu 629 12 28 61 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Jakan etxebizitza salgai. Aukera paregabea. Erdigunean apartamendu guztiz hornitua. Garage eta trastelekuarekin. Deitu 667 49 25 57 telefono zenbakira.

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakira: 638 94 46 04. Bertan Gurutzerengatik galdetu beharko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak lanpostu hau bete behar du:

BANATZAILEA/BUZONEATZAILEA LEITZAN

Lan baldintzak:

Goizeko 7:00etatik 11:00etara. Astean 4 egun. Asteartetik ostiralera.

Interesatuak deitu lehenbailehen **943-30 35 33** telefono zenbakira.

Larramendi Bazkuna elkarteak ateratzen duen deialdia baliatuz, Eva Garcia Magriñak egin du ikerketa lana

Eneritz Maiz Zizurkil

Bi urte luzeko lanaren ondoren, *Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak* liburua argitaratu du Eva Garcia Migrañak (Donostia, 1966). Manuel Larramendi Bazkuna Elkarteak azken urteetan ateratzen duen Ikerlan deialdiaren bidez egin du ikerlana. 2008. urtean aurkeztu zuen bere burua Eva Garciak, eta Zizurkilen kokatzen den Fraisoroko umezurztegiari edo haur etxeari buruzko ikerketa egiteko asmoa azaldu zuen. Horretarako diru laguntza ere esku-ratu zuen.

Arazo larri honen eta hipokrisia guztiaren atzean zer ezkutatzen zen argitaratzeko, Larramendi Bazkuna Elkarteak, jakin-min handia izan du. Sasiko haurren eta ama ezkongabeen gaia iluna da, tabua.

Ikerlana, hunkitze modukoa da, eta era berean, Zizurkilgo Fraisoroko etxe handiari buruz eduki daitezkeen hainbat aurreiritzi apurtzeko modukoa da. Testigantza gordin eta datu errealez osatua dago liburua.

Eva Garcia Magriña eta Jon Unanue, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria izan dira aurkezpen ekitaldian.

Shaskia eta ama etxea

Zizurkilgo Fraisoro, hainbat urteetan bi eraikinetan banatuta egon zen. Eraikin bat, haurra izan behar zuten emakumeak, haurdunaldiko azken hilabeteetan ezkutatze, eta bertan erditzeko zen. Eta nahi izanez gero, haurra berme guztiakin bertan uzteko aukera zuten. Beste eraikina berriz, jaiotzen ziren haurrentzako zen. Foru Aldundiak



Eva Garciak, Koldo Mitxelena aurkeztu zuen liburua, atzo. Gaur Fraisoron bertan aurkeztuko du. E.MAIZ

Fraisoroko ama ezkongabeen eta hauen haurren ezkutuko istorioak argitaratu dituzte

bere gain izan zituen arazo hauek kudeatu ahal izateko. Ama askoren babes ezaren aurrean, eta haurra uzteko gogorik ez zutela ikusita, 1933tik aurrera, ahalik eta ama gehien bere haurrekin atera zitezten, diru laguntzak ematen hasi ziren.

Eva Garciak, lan hau osatzeko erabili dituen iturriak, tornuko edo abandonatutako haurren txostenak izan dira. «Kostata bada ere», Foru Aldundiak baimena eman zien artxiboak arakatzeko. Batzuk, bortxatuak izan dira edo besteak, lotsagatik familiak haurra uztera behartuak, eta irakurleak zuzenean ikusi eta irakurtzeko gehiago hunkitzen duelako, aipamen asko gaztelaraz

sartu ditu. Fraisoroko etxetik patsak amekin eta haurrekin ere hitz egitea lortu du, testigantza zuzenak jasoz.

Tornuetan utzitako haurrak

Zizurkilgo Fraisoro etxea sortu aurretik, abandonuen egoera nola ematen zen argitzen du. XVIII. eta XIX. mendeetan, kalean uzten ziren haurrak. Eta XIX. mendean, komentuen atarrietan tornuak jarri ziren, eta nahi ez ziren haurrak, bertan uzten zituzten. Barruko mojak arduratzen ziren hartzeaz eta zaintzeaz.

1903. urtean, ama eta haur horientzat izango zen eraikina egin zuten Zizurkilen eta 1994. urtean itxi zituen ateak. Luxuzkoa zela

dio; dotorezia eta aurrerapen handikoa. Europako onenetarikotzat hartua izan zen.

Inudeak eta esne falta

Heriotza tasa izugarriak ziren eta ama batek, lau edo bost haurrei eman behar ziela bularra gogorazi du Garciak. Abandonatuko haur guztiak esnerik ez zegoenez, nola edo hala, bularra emateko emakumeak lortu behar zituzten.

Inude hauek ez kutsatzeko eta ziurtasuna izateko, haurrei proba guztiak egiten zitzaizkien. Ekin-tza hau ordaindua izaten zen eta emakumeek hiru hilabetez, ziurtagiriak aurkeztu behar izaten zituzten. Haurrak ahalik eta azka-

«Hunkituko zaituen ikerlana da, aurreiritziak apurtuko dituen»

➔ Larramendi Bazkunako lehendakaria den Jon

Unanuek aurkezpenean zioen bezala, benetan hunkitze moduko ikerlana da:

«Sasiko haurren arazoa, gauaren babespean ate baten aurrean, tornu baten barruan edo bide eta erreka bazterretan utzitako umeena, gure gizarteak izan duen zorritzarrak hits eta makurrenetakoa duzu. Mende askotan heriotzara edo bazterkeriara milaka haur kondenatu dituen gizarte guztietan, baita Gipuzkoan ere.

Fraisorok bazuen askorentzat bere misterioa, gizarteak hipokrisia erabatekoz estali nahi zituen errealitate desegoki eta ezerosoen gaineko morboa, nor bereztat inolaz ere nahi ez zukeen patu eta zoritzararen arragoa izatea».

rren kokatzen saiatzen ziren familietan, bertako egonaldia motza izateko. Baina guztiak ez zuten lortzen eta horiek, bost urtekin, Tolosako Erruki etxera joan behar izaten zuten. Eta lanerako jendea behar zutenak, bertara jotzen zuten. Haurrak, bertatik irteteko beste aukera bat zen.

Langileriak eginko lana eta borroka azpimarratzeko da. Mediku, erretore, karitateko alaba eta batik bat, bertan lana egin zuten emakumeak. Fraisoron bizi-tutakoen testigantza zuzenak ere jaso ditu liburuan, eta hunkigarriak dira. Hauek, liburuan agertzen diren datuen aipu batzuk baino ez dira. Eta egilearen gomendioa, «garaian garaiako begiekin irakurtzea» izan da.

Bestetik, Jon Unanuek «esker-rak» eman nahi izan dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, artxi-boetan arakatzeko zuzeneko «kontiantza» izateagatik.

Astehenean plaza inguruko kalea itxiko dute

Otsailean egin beharreko lanak atzeratu egin dira baina udalak arazoak konpondu ditu

E. Maiz Iruia

Iruako Udalak, astehenetik aurrera, plaza inguratzen duen kalean hasi behar dituzten obrak di-rela eta, autoentzatzat kale guztia itxi egingo du.

Otsailaren hasieran hasi behar zuten lan hauekin, baina herri osoan zuntz optikoa sartzeko hitzarmena sinatua dutela eta, bi al-diz errepidea ez irekitzeko, bi obra batera egin ahal izateko, adostasunera iristea lortu dute.

Obrak irauten duten bitartean, kalea itxita egongo da, eta ez dakite ziur zenbat denbora beharko duten bi obrak bukatzen.

Alde batetik, zuntz optikoa sartzuko dute, eta bestetik, autoentzako erregulatze pibota eta sistema guztia martxan jarriko dute.

Aparkalekuak lekuz aldatuko dituzte, seinaleak, txartelak, margotze eta elektrizitate lanak ere egingo dituzte.

Obrak amaitzean, herriko plaza inguratzen duen kalea autoentzatzat erregulatuta geratuko da. Ez dute guztiz itxiko, baina sarrera mugatua izango da. Bertan bizi direnek, garajeak dituztenek edo denda eta tabernariak sartu ahal izateko txartelak izango dituzte.

Herriar guztiei, honen berri emango diete udaletik.



Plazara sartzeko bidea ezingo da erabili hurrengo asteetan. E.MAIZ

Oinkari Dantza Taldeak 'Ari du' lan berria estreinatuko du apirilaren 15ean Leidor Antzokian. Edu Muruamendiaraz eta Juan Kruz Igerabideren laguntzarekin, poesia eta dantza erritmoak uztartu dituzte.

Euri tanten erritmora dantzan



Azken asteetan egunero entsegatzen dute eta orduak pasatzen dituzte, Ikastolako ganbaran. Emanaldian zuzeneko musika izango da. E.MAIZ

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Ari du, ari du; ari eta euri, ikusmenaren itzasontzia: brankan euria, popan euria, ari eta euri; euriak emetzen du haize zakar bustia. Ari du, ari du, ari eta euri, ari eta euri.

Oinkari Dantza Taldeak, euskal poesia eta euskal dantzak uztartu nahi izan ditu *Ari du* izenez bataiatu duten lan berrian. Horretarako, Juan Kruz Igerabide eta Edu Muruamendiaraz izan dituzte bidelagun.

Oinkari Dantza Taldeko dantzaria eta arduradunetako kidea da Alazne Gurrutxaga. Proiektu honetan, zerbait berria egin nahi zutela argitu du; poesia eta dantza uztartu nahi zituztela. Proiektuaren helburua beti garbi izan dute: tradizioaletik ez dute urrundu nahi, baina emanaldi honekin garaikidearekin lotzeko aukera paregabea ikusi dute, eta hori erakutsi nahi dute.

Lanean hasteko ideiarekin bila, Juan Kruz Igerabide idazlearengana jo zuten. Eta «oso ideia polita eman zigun» dio Gurrutxagak.

Euria eta poemak, irudikatuz

Euria. Oso elementu generikoa da, eta euria izeneko aterki bat eginez gero, bertan, biltzeko gauzarik garrantzitsuen eritmoa izango zen. Emanaldia osatzeko euriaren erritmo ezberdinak baliatu dituzte. Eta euriak berak joko asko eman die. Dantzariarentzat, nola ez, erritmoa oso garrantzitsua da.

Igerabidek, poema berriak idatzi baditu ere, Lizardi, Gandiaga eta Linazasororen poemen oihartzunekin jolastu du, poemak soilduz. Eta poemek esaten dutena, dantzariak taula gainean irudika-



Juan Kruz Igerabide eta Edu Muruamendiaraz dituzte bidelagun. E.MAIZ

tuko dute. Euriarekin batera, sentimenduak daude: maitasuna, emozioak, ametsa, ...

Gazteen ilusioa eta gogoa

Bederatzi bat urte daramatza Edu Muruamendiarazek Oinkari dantza taldearekin lanean. Jende asko ikusten du taldean, eta gainera gaztea. 80 dantzari daude,

eta gutxiago edo gehiago, guztiek parte hartuko dute emanaldian. Ez dago selekzioirik. Eta Oinkari Dantza Taldeak duen beste altxor bat, mutilena da. Mutil asko dago taldean, eta dantza munduan, hori ez da ohikoa.

Proiektu berriaren aurrean, zein musika eta erritmo erabiliko dituzten aurkeztu zizkioten eta

horren arabera hasi zen lanean. Emanaldiaren erdia tradizionala izango da, eta beste erdia koreografiak dituena.

Izugarritzko gogoarekin ikusten ditu dantzariak, eta lan asko egiten dutela nabaritzen du. «Ni astean behin etortzen naiz, eta hurrengo asterako ondo ikasia izaten dute» dio Muruamendiarazek. Lanean hasi zirenetik, eta astetik astera, pausuak aldatuz doaz.

1975. urtetik, ibilbide oparoa

Oinkari Dantza Taldea 1975. urtean sortu zen, eta hasieratik izan duen helburu nagusia, euskal dantza tradizionalak mantendu eta erakustea izan da. Ordutik, gazteak, beti ibili dira Villabonan dantzak ikasten, eta herri mailan dantza emanaldiak eskaintzen.

Azken hamarkadan, helburu bera mantenduz, aurrera pauso bat eman nahi izan dute. Horrez gain, eta garaiak aldatuz doaze-

nez, komenigarri ikusi zuten dantza tradizionala, garaikide edo modernoarekin lotu eta uztartzea. Pausu hau emateko, Edu Muruamendiaraz izan dute lagun. Euskal dantza tradizioale-tan oinarrituz, baina bere koreografiak sartuz, mundu honetan murgiltzen joan dira.

Lehen emanaldia *Garaiak aldatuz doaz* izan zen, eta bere atzetik, *Oroituz* eta *Aspaldikotik* etorri ziren. Azken honetan, Juan Kruz Igerabideren laguntza izan zuten. Eta azken lana, eta ate joka datorrena, *Ari du* izango da. Emanaldian, zuzeneko musika entzuteko aukera izango da. Garazi Esnaolaren zuzendaritzapean, bederatzi musikari igoko dira taula gainera. Poemak berriak, Igerabidek berak irakurriko ditu.

Tolosako Leidor Antzokian estreinatuko dute apirilaren 15ean, 22:30ean. Sarrerak salgai daude, www.kutxa.net helbidean, eta 10 euro ordaindu behar da.



Oinkari Dantza Taldeak, talde askotan gertatzen ez den bezala, ez du arazorik dantzari mutilak aukeratzeko. E.MAIZ

Imanol Garcia Ibarra

Irurako Ikastolak antolatzen duen IV. Ñañarri Rallyesprintean parte hartuko duen gidarietakoa bat izango da Markos Landa (Ibarra, 1977). Oraingoz, eskualdeko bakarra. Rallyesprinta apirilaren 9an izango da, eta, aurren, Alegiatik Amezketara egingo dute ibilbidea. Landaren gidarikide Joseba Iturrioz ibartarra aritzen da. Ibarra Racing taldean parte hartzen dute.

Nola zabitza rallysprinten denboraldian?

Lehenengo proban autoa ez zen martxan jarri. Euria egiten duenean zerbait gertatzen zaio autoari. Zerbait bustitzen da eta ez da martxan jartzen. Akatsa aurkitzen erotzen ari gara. Bigarren- goa Hondarrribian izan zen, eta gustura. Orokorrean 22. bukatu genuen; gure mailan, 2.500 cc. artekoan, laugarren.

Zer moduz Joseba Iturrioz gidarikidearekin?

Aurreko urtean hasi nintzen berearekin eta oso gustura aritu nintzen. Aurren ere berearekin ari naiz.

Garrantzitsua izango da gidarikidearekin ondo konpontzea.

Oso garrantzitsua. Berak esandakoa egin beharra duzu. Ez badu asmatzen, kolpea dezentekoa izan daiteke.

Berarengan konfiantza osoa izan beharra duzu.

Bai, noski. Oharrak bien artean hartzen ditugu, biok erreparatzen ditugu. Baina bera, adibidez, bihurtune batean nahasten bada, ondorioa oso txarra izango zen.

Zenbat garren aldiz aterako zara Ñañarrikoan?

Guztietan parte hartu dut. Lehenengo urtean, adibidez, aurreneko bihurtunean matxura izan nuen. Sekulako ilusioa nuen, herriko lasterketa... eta lehenengo bihurtunean palierra hautsi zen.



I. GARCIA

Markos Landa › Rally gidaria

Ibarra Racing taldeko Markos Landa eta Joseba Iturrioz IV. Ñañarri Rallysprintean parte hartuko dute. «Gozatzera eta gozaraztera atera ohi naiz, baina oraingoa baita irabaztera ere», dio Landak.

«Autoa abiadura handian kontrolatzea gustatzen zait; Ñañarri horretan berezia da»

Iazkoan, lehenengo gelditu nintzen gure mailan. Autoa lagun batek, aurreko gidarikideak, utzi zidan, eta zortearrekin, edo errepi-dea ezagutzen nuelako, irabazi egin genuen.

Zure autoaz hitz egiguzu.

Opel Kadett bat. Lehen autokrosean erabiltzen zen. Suspentsioa autokrosekoa du. Gozatzera ate-

ratzen gara. Txikitzeko beldurrik ez dugu, eta horrek azkar joateko aukera ematen dizu.

Zein ezaugarri ditu?

Motorra 2.000 cc-koa da eta 16 balbula ditu. Bere garaian sekulako autoa zen. Kaleko auto normala da, ez iraultzeko barrekin eta eserleku bereziekin. Martxa kaxa ere ez du aldatuta, eta horregatik

martxak besteenak baino luzeagoak ditu. Besteak laugarren martxan daudenean, ni bigarren- goan nago oraindik.

Auto horrekin lortu zenuen ia irabaztea. Bere meritua izango du.

Zailagoa da auto honi zukua ateratzea.

Zer iruditzen zaizu Ñañarriko Rallysprinta?

Nik uste dut borobila dela. Aurren, berriz goraka doa zirkuitua. Igoera oso azkarra da, eta gero Orendaindik Abaltzisketara azkarra da, baina bihurtuneak ondo hartu behar dira fin joateko. Teknikoa da, abiadura joanez gero, akatsak hor nabaritzen dira. Niri asko gustatzen zait. Ñañarri azkar korritzea dago, eta niri abiadura handian autoa kontrolatzea gustatzen zait. Ñañarri horretan berezia da.

Ikusle goaren aldetik, nolakoa da?

Jende asko etortzen da, eta hemengo izanik, animatzen zaituzte; eta askotan urduri jarri eta arreata galduarazi ere bai. Bestalde, jende asko egoten da komisario bezala. Seguru joaten zara, auto bat kolpearekin badago edo matxuratuta badago, segituan abisatzen zaituzte.

Gastu handia suposatuko du rallyetan parte hartzeak, ezta?

Lau gupril, esaterako, 1.200 euro kostatzen dira. Lau behar dira lehorrerako, lau bustita dagoenean, eta lau erdi lehor erdi busti dagoenean. Gero lizentzia ordaindu behar da, orain lasterketentzako IATA pasatu behar dugu, lasterketa bera ere ordaindu egin behar da...

Eta babesleak dituzu?

Badauzkat batzuk. Gero jendeak ere asko lagundu dit, kamisetak erosiz, txosnan lagunduz. Laguntzak toki guztietatik etorri dira.

Kirol arrikutsua da?

Fisikoki mina hartzea zaila da. Horretan ez dut pentsatzen, bestela ez ginatke aterako. Gidariok normalean gastuetan gehiago pentsatzen dugu.

Txapelketari begira, zer asmo duzu?

Ikuskizun pixka bat ematera ateratzen naiz, aurrena gelditzera baino. Hemen nire mailan irabaztera joango naiz, etxean dela aprobetxatuz, eta errepi-dea ezagutzen dudalako. Gozatzera eta gozaraztera atera ohi naiz, baina oraingoa baita irabaztera ere.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Elkarlanetik jaio da eta musikatik eraikiko dute Atekabeltz Elkarte

Kontzertuak 20:30ean hasiko diren arren, festa 18:30ean hasiko da kalejira aldarrikatzaile batekin

Maier Ugartemendia Leitza

Larunbat honetan bertan izango da Atekarock jaialdia. Bertan izango dira KOP, Berri Txarrak, Su Ta Gar, Vendetta, Gose eta Bad Sound System taldeak.

Atekarock jaialdia Atekabeltz elkarteak antolatatu du. Atekabeltz eraikinare barruko obrak egin ahal izateko. Horregatik, *Elkarlanetik jaio, musikatik eraiki* leloa jarri diote jaialdiari. Auzo lanarekin eraikitzen ari dira Atekabeltz, eta musika erabiliko dute proiektu horretan laguntzeko. Jaialdia larunbatean den arren, bihar hasiko dira prestaketa lanak. 100 lagunetik gora behar dira egun hauetan lan egiteko. Bihar hasi eta igandera arte ez baita amaituko antolatzaileen lana.

Kalejira aldarrikatzaile batekin hasiko da festa, 18:30ean. Lizarrako batukadaren laguntzarekin herri guztian zehar aldarrikatuko dute. Ekitaldiaren ondoren, kontzertuen txanda iritsiko da. Jaialdia kiroldegian izango den arren, gaztetxean ere ez da musikarik faltako. Bad Sound System taldeak kontzertua eskainiko du bertan.

Kontzertuak 05:00ak inguruan amaituko diren arren, kiroldegian ez da musikarik faltako; eta eguna argitu arte parradan ja-



Atekarock Atekabeltzeko lanak egin ahal izateko antolatatu dute. M.U.

rraitzeko aukera izango da, bai kiroldegian eta baita gaztetxean ere. Sarrerak aurretik salgai egon diren arren, egunean bertan ere erosi ahal izango dira, 20 euroren truke. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-K** ere bi sarrera pare zozketatuko ditu harpidedumen artean.

Leitzara joateko autoa hartu nahi ez dutenek autobus zerbitzua erabili ahal izango dute joan-etorria egiteko. Eskualdekoentzat Tolosatik abiatuko da autobusa, 20:00etan. Villabonara eta Andoaína joango da, handik Leitzara joateko. 07:00etan abiatuko da Leitzatik itzulerako autobusa, kontrako ibilbidea egingo duelarik.

Beraien martxan ibili nahi dutenentzat goizean goizetik akanpaleku bat irekita egongo da, herri-gunean. Asteburu honetarako aukera bikaina izan daiteke, beraz, Atekarock jaialdia.

↓ Atekarock

EGITARAU

- **18:30.** Kalejira aldarrikatzailea herrian barrena, Lizarrako batu-kadarekin.
- **19:30.** Ekitaldia Atekabeltz gaztetxean, Atekabeltz herri-gunearen nondik norakoak azalduz.
- **20:00.** Kontzertu-gunearen irekiera. Bertan bokatak egongo dira gau osoan zehar, kiroldegi ondoko karpan. Hau musikaz alaiturik egongo da.
- **20:30.** Hasiara emango zaie kontzertuei. KOP taldea izango da joko duen lehen taldea.
- **01:00.** Bad Sound Systemek gaztetxea irauliko du ragga-reggae-ska doinuez.
- **05:00.** Kontzertuen amaiera izango da, kiroldegia musikaz alaituko dute hortik aurrera.

Fernandez eta Martinez etxera gerturatzen ari dira

Arazoren bat izan duten arren, Kanariar irletan daude jada Mapfre ontzikoak; lehen ontzitik 321 miliatara

M. U. Ibarra

Xabi Fernandez eta Iker Martinez etxetik gero eta gertuago daude. 90 egun daramatzate Mapfre ontzian. Jada Kanariar irletan daude, eta beraien helmuga Bartzelonan dago. Kanariar irletan atzean uzten dituztenean, Gibraltarko itsasartea izango dute helburu.

La Palma eta La Gomera uharteen artean pasatzen ari dira orain. Ez da kasualitatea. Erabaki hau bi arrazoiengatik hartu dute. Alde batetik, ekialdera joan nahi zuten. Bestetik, estai bat konpontzeko beharra zuten, bide hori hartzea egokiena zela pentsatu zuten. Mastari eusteko

soka, hau da, estai konpontzeko 20 minutu inguru behariko zituzten pentsatzen zuten arren, gauza korapilatu egin zen, eta oso baliotsuak ziren 3 ordu galdu zituzten.

Orain, Gibraltarko itsasartea dute helburu. Mediterraneo itsasoak ezusteko handiak ematen ditu, eta horregatik une hori zaila izango dela uste dute nabigatzaileek.

Mapfre ontzia bigarren postuan dago urtarrilaren 26tik, eta ez dio atsedenek hartzen utzi Virbac Paprec ontziari. Esperantza galdu ez duten arren, badakite frantsesek huts egitea oso zaila dela, eta beraz, ia ezinezkoa dela lehen postua lortzea.

Hala ere, Xabi Fernandezek gauzak «ondo» doazela eta «kondizio onak» dituztela esan zuen duela egun batzuk. Apirilaren 5an edo 6an Bartzelonara iristea espero dute, eta burua helmugan dutela ere onartzen dute.



Mapfrekoek apirilaren 5an edo 6an Bartzelonara iristea espero dute. HITZA

Balearen eta gizakiaren arteko borroka islatuko dute antzerkian

Munstroa emanaldia igandean izango da, Ibarako gaztetxean; borroka epiko baten istorioa kontatuko dute

M. U.

Igandean, apirilaren 3an, *Munstroa* antzerkia ikusi ahal izango da Ibarako gaztetxean. Antzerkia 18:30ean hasiko da.

1878ko otsailaren 11n balea bat agertu zen euskal kostaldean. Mende hartan, lau balea soilik ha-

rrapatu ziren euskal kostaldean. 1878an zarauztarrek, oriotarrek eta getariarrek ehizatu zuten balea bat. Kantauria itsasoan, modu tradizionalan ehizatu zen azkena izan zen, gainera. Balea portura eraman zutenean, ordea, euren artean haserretu egin ziren, eta ez ziren elkar ulertzeko gai izan. Egunetan egon zen balea bertan, usteldu zitzaizen arte. Horrek, Zarauzko eta Getariako herriak, urte luzez, aurrez aurre jarri zituen. Azkenean balearen hezurak Donostiako aquariumari saldu zitzioten, eta oraindik bertan jarraitzen dute.

Istorio honi antzerki formatua eman diote, orain. Baina, istorio lokal bat izatetik, unibertsal izatera igarota.

Biziraupenak bultzaturiko herriozko lehia bortitz bat ikusi ahal izango da antzerkian. Borroka epiko bat da, gizakia munstroaren aurka. Beldurra, ausardia, noblezia, justizia, amorrua, inbidia eta norgehiagokaren koktelak, gizakia, beste behin, hondamendiraren eraman zueneko borroka izan zen. Antzerkian bi aktorek parte hartzen dute. Ari kontalaria, berriz, historia honetan galtzaile izan zenak darama.

GERENTEA

Erreferentzia: (11-ETXG)

Eskatzen da:

- Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa edo Ekonomia arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orri eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo baliokidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Logistika, kudeaketa eta antolaketa lanetan eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Eskaintzen da:

- Kontratu iraunkorra.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoaínan.

Interesa dutenek curriculum, martxoaren 31a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali: gizabaliabideak@jarduna.net



GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	24°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Leitza.** Denok Bat Guraso Elkartek *Komunikazioa familian* hitzaldia, eta adimen emozionalari buruzko tailerra antolatatu ditu. Hitzaldia gaur izango da 17:00etan eskolako liburutegian. Tailerra, aldis, apirilaren 4an, 11n eta 18an izango da 15:00etatik 16:30era. Ikastaroen prezioa 5 eurokoa da, eta lehendabiziko saioan kobratuko dute. Informazio gehiagorako denokbatge@hotmail.com helbidera idatzi.
- **Tolosa.** Gaur 19:00etan Korrika 17.ren harira prestatutako dokumentala eskainiko dute kultur etxeko areto nagusian. Etzi materiala jarriko dute salgai Trianguloan.
- **Tolosa.** Gaur 19:00etan Sanjoanen inguruan hitz egiteko Jai Batzordearen bilera irekia izango da kultur etxean.
- **Villabona.** Bihar Korrika 17.ren materiala jarriko dute salgai Berdura plazan 18:00etatik 20:30era.
- **Tolosa.** Asis Sarearen otoitzaldia gaur Klarisen komentuan 19:30etik aurrera.
- **Ibarra.** *Lehen napar euskaldunak, lehen euskal naparrak*

izeneko mahai ingurua egingo dute bihar, Subegi kultur elkartean 19:15ean. Bertan, Iñaki Perurena izango da. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte mahai ingurura gerturatu eta galderak egitera.

■ **Ibarra.** Herriko Korrika Batzordeak bilera egingo du gaur 19:30ean Benito Izagirre Kultur Etxean. Bertan, bigaiei buruz hitz egingo dute. Alde batetik, Korrikako kilometroa erosi nahi dutenentzat informazioa emango dute, eta bestetik, hurrengo egunetarako antolatutuzten ekitaldien inguruan hitz egingo dute. Bihar Korrika Oinez poteoa eta kartel jartze irekia ere egingo dute.

■ **Tolosaldea.** Etzi Bilbon *Euskal Herriarentzat normalizazioa. Legalizazioa orain!* lelopean egingo den manifestaziara joateko autobusak antolatutuzte. Tolosan 15:30ean irtengo da Trianguloatik, eta Raku tabernan eman behar da izena bihar eguerdia baino lehen. Alegia, Amezketeta, Altzo, Orendain eta Ikaztegiaren zerrendak ohiko lekuetan daude. Gaur da izena emateko azken eguna.

■ **Tolosa.** Osasun publikoaren aldeko plataformak sinadura

bilketara egingo du etzi, larunbata, Trianguloan goizean zehar.

■ **Aduna.** Asvinieneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatatu du asteburu honetarako. Berez, larunbatean bakarrik egin behar zuten tailerra, baina klasea bete denez, igandean, apirilak 3, beste saio bat eskainiko dute 16:30etik 19:00etara. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko www.asvinienea.com webgunera sartu edo 665 738 081 telefonora deitu.

■ **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskaerak egiteko derrigorrezkoa da begirale titulua eta EGA izatea. Curriculumak ibarra@ikastola.net helbidera bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz.

ERAKUSKETAK

- **Villabona.** Gurea Zinemako erakusketa gelan Amasa-Villabonako lekuen izenak izeneko erakusketa ikusi daiteke larunbata bitartek. Gaur eta bihar 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta etzi, larunbata, 11:00etatik 13:00etara.

Irudia Tolosa



BALKOIRIK ALAIENA

Maite Saizarrek irabazi du Amaro Auzo Elkarteak Inauterietan girozko antolatutako ohi duen balkoi lehiaketa. Bigarren Juan Antonio Estebanek egin du, eta hirugarren, Puri Nuñezek. Bestetik, aurtan berriro ere Aipamen Berezia 2. portaleko aurrealdeari eman diote. Guztira 81 bizilagunek hartu dute parte lehiaketan, eta elkarteko kideek, partaide guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurak



HITZAK harpidedunen artean **Korrikaren lekukoa eramatea** zozketatuko du

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK kilometro bat erosiko du aurtan ere Korrikan. **Lekukoa eramatea** harpidedunen artean zozketatuko dugu.



Tolosa
Apirilak 13 - asteazkena
08:00etan

saria eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula
Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunaren izenak Apirilaren 8ko egunkarian.

